



BUKAERAKO DISKURTSOA. MITXEL LAKUNTZA

Ekainak 3, 2025

Eskerrik asko, eskerrik asko Batzorde Eragile honetan jarri duzuen konfiantzarengatik.

Talde bat aukeratu duzue, zuek bezala, duen onena emango duena kongresu honek erabaki dituen ildoekin aurrera egiteko. Hori da Nazio Batzordearekin batera hurrengo lau urteetarako dugun lana eta erronka.

Ibilbide, profil eta izaera ezberdineko kideek osatzen dugu sindikatu honetako zuzendaritza. Ikuspegi eta ekarpen ezberdinak behar ditugu, guzti horiek ezinbestekoak direlako eztabaida, plangintza eta ekimenetan asmatzeko.

Elkar zainduz eta pasioz ekingo diogu erronkari. Elkar zainduz, eginkizun militante honetan, denok babesa eta laguntza behar dugulako, zuzendaritza barne. Elkar zaintza jaso eta eman behar denean. Sindikatu honetako eskualde, federazio eta sekzio sindikal bakoitzean talde babesa indartzen saia gaitezen.

Horretan datza gure indarra, indar kolektiboa da gurea.

Esan bezala, pasioaz ere ekingo diogu gure lanari. Guk egiten dugun sindikalismo mota ezin delako pasiorik gabe egin. Konbikzioa, elkartasuna eta determinazioa behar dira. Horregatik emozionatzen gara lortzen dugun garaipen bakoitzarekin. Garaipen horietako bakoitzean jabetzen gara sindikatu honen handitasunaz.

Milaka langileen bizitzak hobetzen ditugu gure ekimen kolektiboarekin. ELAren sendotasunak aukera bat ematen die herri honetako langile guztiei; zapalduta dauden langile orori, egoera zaurgarrienetan dauden langileei. Sindikatua defentsa kolektiborako indarra da.

Zapalduta dagoen orok, borrokatu nahi duen orok, hemen dauka toki bat. Ez da inor soberan. ELA delako herri honetako langileek duten tresnarik sendoena!

Lau ideia nagusi, ondorio batzuk partekatu nahi ditugu zuekin gaur:

1.Ez da egia sindikalismo osoa krisian dagoenik

Denak ez. Krisi egoeran daude, hain zuzen ere, kontraboterea eta konfrontazioaren alde egin ez duten sindikatu eta eragileak.

Bizi dugun oldarraldi neoliberal baten aurrean, bitartekaritza, moderazio eta kontenzio ereduaren aldeko eredia krisian dago.

Sindikatuok ez gaude langileen aldarriak eta nahiak geldiarazteko, baizik eta okerren daudenen borroka antolatzeke. Eta horrek ez du sekula atxikimendu eza sortzen langileen artean; borroka sindikalak sortzen du atxikimendua, ilusioa eta militantzia.

2.Eredu sindikalaren lehia irabazi dugu

"Ez dago etorkizunik elkarriketa sozialeko mahietatik kanpo", esan zuen Nafarroako Lehendakariak, Maria Chivitek, orain dela urte batzuk.uek behera egin dute.

Gobernuek eta patronalek muntatzen dituzten mahai horietan banatzen den diru publikoak ezin du errealitate bat ezkutatu: mahai horietatik ez da ezer onik ateratzen langileentzat, ez dago inolako emaitzarik.

Hori da porrotaren argazkia. Babesik eta emaitzarik eza.

Gure errealitatea beste batekoa da. Konfrontazio eta kontrabotereko ereduari esker lortu ditugu prekarietatearen kontrako garaipenak, hitzarmen gehiago eta hobeak.

Borrokarako prestatzen ez duenak ez du zer eginik.

Horregatik defendatzen dugu: greba egiteko gaitasuna dugunean, lan-baldintzak hobetzeko ateak zabaltzen direla.

Errespetua antolakuntzaren bitartez lortzen da, langileak batuz eta indartuz.

Greba da uzten diguten aukera bakarra. Eta grebaz ari garela, gutaz esaten diren lau gezur argi utzi nahi ditut:

- **i. "Gatazka helburu bat da bere horretan"**

Gezurra da. Patronalak edo administrazioak edukiak jartzen dituenean, ELAk sinatzen du. Helburua hitzarmen onak lortzea da, baina askotan hori ez da posible gatazkarik gabe.

- ii. **"Greba ezin da lehendabiziko aukera izan" (Lehendakaria)**

Eta noiz izan da? Grebak egiten dira langileen oinarritzko aldarrikapenak erantzunik ez dutenean. Patronalek eta administrazioek beti dute aukera grebarik egon ez dadin. Lehendakariaren arazoa da grebak egin arte ez dela langileekin gogoratzen. Zenbat urte eta bilera behar izan dira Osakidetzan, hezkuntzan, zahar-egoitzetan akordioak erdiesteko?

Grebarik nahi ez badu, Lehendakariak badaki bidea: autoritarismoa alboratu eta negoziazioari bide eman diezaiola.

Grebari esker gaintitzen dugu blokeo hori, eta horregatik lortzen ditugu hitzarmenak. Horregatik, Euskal Herria da salbuespen sindikal bat.

- iii. **"ELAk bere interes korporatiboak lehenesten ditu"**

ELAk lortzen ditu hitzarmen onenak. Hitzarmen horiek afiliatuei esker lortzen dira, horiek egiten dute posible sindikatua, baina afiliatu gabe daudenei ere aplikatzen zaizkie.

Beraz, sindikatua sendotzen duen heinean, edozein sindikatuarentzat langileak afiliatzea lehentasun bat izan beharko luke.

- iv. **"ELA ez da gai akordioetara iristeko" (Aitor Esteban)**

Hau da onenetako bat. Deskonektatuta egon behar da herri honen errealitatetik ez jakiteko zein sindikatuak lortzen dituen hitzarmen gehien.

ELA da urtero hitzarmen gehien lortzen dituen sindikatua. Urtero 250 hitzarmen baino gehiago. Eta gainera, estatistiken arabera, hitzarmen onenak.

Horrelako gezur eta fundamenturik gabeko adierazpenekin osatzen da ELAren aurkako errelatoa.

Baina esaten edo egiten duguna baino, badago jasan ezin duten gauza bat: 104.000 afiliatuk osatzen duten sindikatu baten sendotasuna.

Hori da benetan jasan ezin dutena sindikatu honen babesa eta sendotasuna!

3.Oinarritzko eskubide bat da politikan eragitea

Politika egin dugu, egiten dugu eta egingo dugu aurrerantzean. Osakidetza politika da, zaintza-sistema politika da, etxebizitza politika da, fiskalitatea politika da... dena politika da, eta politika horiek bete-betean eragiten dute langile-klasearengan.

Horregatik ez dugu onartuko herri honetako sindikatu nagusiaren politikan eragiteko zilegitasuna ezbaian jartzea.

Behin eta berriz, herri honetako patronalak eta alderdi batzuk ezbaian jartzen dute sindikatu honen oinarritzko eskubideak: adierazpen askatasunarena eta askatasun sindikalarena.

Ez da egia gizarte batean dagoen zilegitasun politiko bakarra hauteskunde politikoetatik jaiotzen denik. Gizarte zibila osatzen dugun eragile ezberdinek zilegitasun osoa dugu, oinarritzko eskubideak dauzkagun heinean, politikan eragiteko.

Non dago idatzita herri honetako sindikatu nagusiak ez duela zilegitasunik politikan eragiteko?

Zein kontzepzio demokratikoa dute herri honetako alderdi eta patronal batzuk?

Patronalak eta gobernuek margen txiki batzuk uzten dituzte negoziatziorako. Mezua argia da: ez dago aukerarik funtsezko aldaketarako. Eta guk negoziazio kolektiboan eta politikan funtsezko aldaketak behar ditugu.

Soilik ados daudenen eragileen iritzia eta jarduerak onartzen dira. Adostasun horretatik kanpo kokatzen garenean, gure zilegitasuna ezbaian jartzen dute.

Ez dago demokraziarik eragile eta sindikatuen oinarritzko eskubideak ez badira errespetatzen. Horrek beste izena du, eta ez da demokrazia.

ELA herri honetako lehenengo sindikatua da, eta horretan datza gure zilegitasuna eta gure indarra: langileek egunero ematen digutena.

Politika egiten dugu, besteak beste gutxieneko soldataren aldeko kanpainarekin. Eta politika egitera goaz herri honen estatus politiko berri bat aldarrikatzera.

Herri honi dagokion erabakitzeko eskubidea defendatzen jarraituko dugu, lan-legedia eta gizarte-segurantzaren erabaki nahi dugulako. Eta horrekin batera bermeak behar ditugu, adibidez euskarak gazteleraren menpekotasun legala gainditzeko.

Atzo esaten genuen bezala, bestelako politika bat behar dugu instituzioetan. Ezkerretik hasita. Eskuinari aurre egingo diona, eduki eskaseko adostasunetan erori gabe, argi erakutsiz alternatiba eraldatzaileak daudela eta eragile sozialekin elkarlana bilatuz.

Elkarlan hori da gustatuko litzaigukeena lantzea: langileen aldeko politikak erdigunean jarriko lituzkeena.

4.Gure esku dauden erronkak: Militantzia gehiago botere sindikala irabazteko

Helburu nagusi batekin etorri gara XVI. kongresu honetara: sindikatua indarberritzera. Herri honetako langileen mesedetara dagoen tresna sendotzera.

Gure kuotek eta autonomiak ematen diguten sendotasunarekin.

Gure esku dagoena da, batez ere, ongi egin behar duguna. Erronka batzuk jarri dizkiogu gure buruari, hurrengo lau urteetan bukatuko ez direnak.

Sindikatu feminista bat izateko bidean ari gara. Eraginkorragoak izan nahi dugu planifikazio hobe baten bitartez. Lantokietan langileak sindikalizazioaren bidez indar gehiago edukitzeko. Sindikatu hau oraindik oso urrun dago sabaia jotzetik. Horregatik, benetako jauzi bat eman nahi badugu lantokietan dugun botere sindikalean eta eragin politikoan, bide hori soilik modu batean eman daiteke: jauzi hori militantziaren bidez emango dugu.

Pertsona gehiago. Konprometituagoak. Aktiboagoak. Hobeto antolatuak. Sindikatuan. Borroka guztietan.

Badakigu nola egin. Badakigu, eta gainera, jada egiten dugu.

Urtero, gure sindikatuan, milaka eta milaka pertsona ari dira militantzian: greba bakoitzean, negoziazio bakoitzean, manifestazio bakoitzean.

Militantzia hori existitzen da. Egunero ikusten dugu. Erronka militantzia hori zaintzea da, sendotzea, antolatzea, biderkatzea, militantzia iraunkor bilakatzea.

Hori da gure erronka, eta hori izango da gure bidea. Egin dezakegu. Egingo dugu. Gure esku dagoelako. Behar dugulako.

Eta egingo dugu, sindikatu militante batek ez duelako sabairik.

Besteak beste bi ezaugarri ditu militante batek: ikuspegi kolektiboa eta konpromisoa.

Militante bat da norberaren interesen haratago konponbide kolektiboa bilatzen duena. Hori da militante batean abiapuntua.

Militantea izatea jarrera bat da. Eta ez dago militante izateko modu bakarra. Era askotako militantziak behar ditugu: anitzak eta inklusiboak.

Botere sindikal handiagoa nahi dugu lantoki bakoitzean eta sektore bakoitzean, eta eragin politiko handiagoa.

Horretarako ari gara lanean. Hori da hurrengo urteetan emango dugun jauzia: militante gehiago eta antolatuagoak sindikatuan.

Hau da dena, lagunak. Bihar zuen lantokietara bueltatutakoan, langileek, afiliatuek galdetzen badizuite zer egin duzuen kongresuan, esaiezue langileen mesedetara dagoen erakundea sendotzera eta indartzera etorri zaretela. Hori da bi egunotan egin duguna: sindikatua indarberritu.

Eskerrik asko denoi! Segi bizkor eta pozik bizi!

GORA ELA!

GORA MUNDUKO LANGILERIA!

GORA EUSKAL HERRIA ASKE ETA SOLIDARIOA!

Euskal Herria, 2025eko ekainaren 3an



DISCURSO FINAL. MITXEL LAKUNTZA

3 junio 2025

Eskerrik asko, eskerrik asko por la confianza que habéis depositado en este Comité Ejecutivo.

Habéis elegido un grupo que, como vosotras y vosotros, va a dar lo mejor que tiene para avanzar con las líneas que ha decidido este Congreso. Ese es el trabajo y el reto que tenemos junto con el Comité Nacional para los próximos cuatro años.

La dirección de este sindicato está formada por personas de diferente trayectoria, perfil y carácter. Necesitamos diferentes perspectivas y aportaciones, porque todas ellas son imprescindibles para acertar en debates, planificaciones e iniciativas.

Afrontamos el reto cuidándonos mutuamente y con pasión. Cuidándonos, porque en esta función militante, todas y todos necesitamos apoyo y ayuda, incluida la dirección. Intentemos reforzar el apoyo colectivo en cada una de las comarcas, federaciones y secciones sindicales de este sindicato.

En eso reside nuestra fuerza, la nuestra es la fuerza colectiva.

Como he dicho, también vamos a empezar nuestro trabajo con la pasión. Porque el tipo de sindicalismo que hacemos no se puede hacer sin pasión. Hace falta convicción, solidaridad y determinación. Por eso nos emocionamos con cada victoria que conseguimos. En cada una de esas victorias somos conscientes de la grandeza de este sindicato.

Mejoramos las vidas de miles de personas trabajadoras con nuestra iniciativa colectiva. La fortaleza de ELA da una oportunidad a todo el personal de este país; a todas las personas que están oprimidas, a las que están en las situaciones más vulnerables. El sindicato es una fuerza de defensa colectiva.

Quien esté oprimido y oprimida, quien quiera luchar, aquí tiene un lugar. No sobra nadie.

¡Porque ELA es la herramienta más sólida que tienen las personas trabajadoras de este país!

Hoy queremos compartir cuatro ideas principales, algunas conclusiones:

1. No es cierto que todo el sindicalismo esté en crisis

No todo. En una situación de crisis están precisamente el contrapoder y los sindicatos y agentes que no han optado por la confrontación.

Ante un ataque neoliberal como el que vivimos, el modelo a favor de la mediación, la moderación y la comprensión está en crisis.

Los sindicatos no estamos para frenar los clamores y deseos de la clase trabajadora, sino para organizar la lucha de las que peor lo están pasando. Y eso nunca genera desapego entre las personas trabajadoras; es la lucha sindical la que genera adhesión, ilusión y militancia.

2. Ganamos la pugna del modelo sindical

"No hay futuro fuera de las mesas de diálogo social", dijo la Presidenta de Nafarroa, María Chivite, hace unos años.

El dinero público que se reparte en esas mesas que montan gobiernos y patronales no puede ocultar una realidad: de esas mesas no sale nada bueno para los trabajadores, no hay ningún resultado.

Esa es la foto de la derrota. Falta de apoyo y resultados.

Nuestra realidad es de otra. Gracias al modelo de confrontación y contrapoder hemos conseguido victorias contra la precariedad, más y mejores convenios.

Quien no se prepara para el combate no tiene nada que hacer.

Por eso defendemos: que cuando tenemos capacidad para hacer huelga, se abren puertas para mejorar las condiciones laborales.

El respeto se consigue a través de la organización, sumando y reforzando al personal.

La huelga es la única opción que nos dejan. Y hablando de huelga, quiero dejar claras cuatro mentiras que se dicen sobre ELA:

- i. **"El conflicto es un objetivo en sí mismo"**

Es mentira. Cuando la patronal o la administración pone los contenidos, ELA los firma. El objetivo es lograr buenos convenios, pero muchas veces eso no es posible sin conflictos.

- ii. **"La huelga no puede ser la primera opción" (Lehendakari)**

¿Y cuándo lo ha sido? Las huelgas se hacen cuando las reivindicaciones básicas de las y los trabajadores no tienen respuesta. Las patronales y las administraciones siempre tienen la posibilidad de que no haya huelga.

El problema del lehendakari es que hasta que no hay huelgas no se acuerda de las personas trabajadoras. ¿Cuántos años y reuniones se han tardado en llegar a acuerdos en Osakidetza, en educación, en residencias?

Si no quiere huelga, el Lehendakari sabe el camino: que abandone el autoritarismo y dé paso a la negociación.

Superamos ese bloqueo gracias a la huelga y por eso conseguimos convenios. Por eso, Euskal Herria es una excepción sindical.

- iii. **"ELA prioriza sus intereses corporativos"**

ELA consigue los mejores convenios. Esos convenios se consiguen gracias a las personas afiliadas, que son las que hacen posible el sindicato, pero también se aplican a las que no están afiliadas.

Por tanto, en la medida en que consolide el sindicato, para cualquier sindicato, la afiliación de las y los trabajadores debería ser una prioridad.

- iv. **"ELA no es capaz de llegar a acuerdos" (Aitor Esteban)**

Esta es una de las mejores. Hay que estar desconectado de la realidad de este país para no saber qué sindicatos consiguen más convenios.

ELA es el sindicato que más convenios consigue cada año. Más de 250 convenios anuales. Y además, según las estadísticas, los mejores convenios.

El relato contra ELA se completa con este tipo de declaraciones sin mentiras ni fundamento.

Pero más que lo que decimos o hacemos, hay una cosa que no pueden soportar: la solidez de un sindicato formado por 104.000 personas afiliadas.

¡Eso es lo que realmente no pueden soportar el apoyo y la solidez de este sindicato!

3. La incidencia política es un derecho fundamental

Hemos hecho, hacemos y haremos política adelante. Osakidetza es política, el sistema de cuidados es política, es política de vivienda, la fiscalidad es política... todo es política, y esas políticas afectan de lleno a la clase trabajadora.

Por eso no vamos a permitir que se cuestione la legitimidad para influir en la política del sindicato mayoritario de este país.

Una y otra vez, la patronal de este país y algunos partidos cuestionan los derechos fundamentales de este sindicato: el de la libertad de expresión y el de la libertad sindical.

No es cierto que la única legitimidad política que existe en una sociedad nazca de unas elecciones políticas. Los diferentes agentes que conformamos la sociedad civil tenemos plena legitimidad, en la medida en que tenemos derechos fundamentales, para incidir en la política.

¿Dónde está escrito que el sindicato mayoritario de este país carece de legitimidad para influir en la política?

¿Qué concepción democrática tienen algunos partidos y patronales de este país?

La patronal y los gobiernos dejan unos pequeños márgenes para la negociación. El mensaje es claro: no hay posibilidad de cambio sustancial. Y nosotros y nosotras necesitamos cambios sustanciales en la negociación colectiva y en la política.

Sólo se aceptan las opiniones y actuaciones de los agentes que están de acuerdo. Cuando nos situamos fuera de ese consenso, cuestionan nuestra legitimidad.

No hay democracia si no se respetan los derechos fundamentales de los agentes y sindicatos. Eso tiene otro nombre, y no es democracia.

ELA es el primer sindicato de este país, y en eso radica nuestra legitimidad y nuestra fuerza: lo que las personas trabajadoras nos dan cada día.

Hacemos política, entre otras cosas con la campaña a favor del Salario Mínimo. Y vamos a hacer política a reivindicar un nuevo estatus político de este país.

Seguiremos defendiendo el derecho a decidir que le corresponde a este país, porque queremos decidir aquí la legislación laboral y la seguridad social. Y junto con eso necesitamos garantías, por ejemplo, para que el euskera supere la dependencia legal del castellano.

Como decíamos ayer, necesitamos una política diferente en las instituciones. Empezando por la izquierda. Que haga frente a la derecha, sin caer en consensos de escaso contenido, demostrando claramente que hay alternativas transformadoras y buscando la colaboración con los agentes sociales.

Esa colaboración es lo que nos gustaría trabajar: lo que pondría en el centro las políticas a favor de la clase trabajadora.

4. Retos a nuestro alcance: Más militancia para ganar poder sindical

Hemos venido a este XVI congreso con un objetivo principal: revitalizar el sindicato. A consolidar un instrumento que beneficia a los y las trabajadoras de este país.

Con la solidez que nos dan nuestras cuotas y nuestra autonomía.

Lo que está en nuestras manos es, sobre todo, lo que tenemos que hacer bien. Nos hemos puesto unos retos que no terminarán en los próximos cuatro años.

Estamos en el camino de ser un sindicato feminista. Queremos ser más eficientes con una mejor planificación. Aumentar la fuerza de las personas trabajadoras en los centros de trabajo mediante la sindicalización.

Este sindicato aún está muy lejos de tocar techo. Por eso, si queremos dar un salto real en nuestro poder sindical e influencia política en los centros de trabajo, ese camino sólo se puede dar de una manera: ese salto lo daremos a través de la militancia.

Más personas. Más comprometidos. Más activos. Mejor organizados. En el sindicato. En todos los combates.

Sabemos cómo hacerlo. Lo sabemos, y además, ya lo hacemos.

Cada año, en nuestro sindicato, millares y miles de personas militan: en cada huelga, en cada negociación, en cada manifestación.

Esa militancia existe. Lo vemos todos los días. El reto es cuidar esa militancia, consolidarla, organizarla, multiplicarla, convertirla en una militancia permanente.

Ese es nuestro reto, y ese será nuestro camino. Podemos hacerlo. Lo haremos. Porque depende de nosotras y nosotros. Porque lo necesitamos.

Y lo haremos porque un sindicato militante no tiene techo.

Entre otras cosas, una persona militante tiene dos características: la visión colectiva y el compromiso.

Es militante quien busca una solución colectiva más allá de los propios intereses. Ese es el punto de partida.

Ser militante es una actitud. Y no hay una única forma de ser militante. Necesitamos militancias diversas: múltiples e inclusivas.

Queremos más poder sindical en cada centro de trabajo y en cada sector y más influencia política.

Para eso estamos trabajando. Ese es el salto que daremos en los próximos años: más militantes y más organizados en el sindicato.

Esto es todo, amigos y amigas. Mañana, al volver a vuestros centros de trabajo, si las personas trabajadoras, las personas afiliadas os preguntan qué habéis hecho en el Congreso, decidles que habéis venido a fortalecer la organización que beneficia a la clase trabajadora. Eso es lo que hemos hecho estos dos días: revitalizar el sindicato.

¡Eskerrik asko denoi!

Eskerrik asko denoi! Segi bizkor eta pozik bizi!

GORA ELA!

GORA MUNDUKO LANGILERIA!

GORA EUSKAL HERRIA ASKE ETA SOLIDARIOA!